



Atzerritarrak ere euskara eta euskal kultura ikasten

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ Aisa

programaren bidez, eta bi udalek bultzatuta, ari dira eskolak jasotzen

INTEGRAZIOA ▶ Hizkuntza

ikastea garrantzitsua deritzote ikasleek euskal gizartera egiteko ▶ 4



Ia 600 lagunek ikusi dute 'Hazparneko anderea' lana

LEITZA ▶ «Jendearen emanak harritu eta gainditu egin gaitu». Halaxe zioten Txinparta taldekoek, harrituta eta asebeteta era berean, igandean eskainitako emanaldiaren ostean. Larunbateko saioak izan zuen arrakastaz jabetuta, berriz ere taularatu behar izan zuten Telesforo Monzonen *Hazparneko anderea* lana. Lur

Kortaren zuzendaritzapean aritzen den herriko jendeak osatutako taldea da Txinparta, eta herrikideek bikain erantzun zioten deialdiari; denera, ia 600 ikusle bildu ditu antzezlanak bi egunetan. Beste hainbat herritako taula gainera ere igoko direla baieztatu diote leitzarrek **HITZARI**. J. ASTIBIA ▶ 7

LEITZA ▶

Igor Astibia bakartuta dute espetxean

Sei egunetarako sartu dute Navalcarnero zigor zeldan ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Goya sari bakarra jaso du 'Obaba'-k

Soinu onenarena lortu du Atxagaren eleberrian oinarritutako filma ▶ 4

IBARRA ▶

Herritarren hitza entzun dadin eskatu du Uztak

Ontzat jo du arauak eztabaidatzeko mahaia osatzeko proposamena ▶ 6

TOLOSA ▶

Aldundiaren diru laguntza Udalari

22.814.446 euro bideratuko ditu ▶ 3



GIZARTEA ▶

Txosna batzordearen bilera, gaur

Gaur, 19:00etatik aurrera, Antonio Maria Labaien kultur etxeko aretoan, txosna batzordearen bilera deitu dute. Antolatzaileek jakitera eman dutenaren arabera, gainera, azken deialdia izango da aurtengo Inauterietan txosna bat jarri nahi duen edonorentzat. Beraz, bilerara azaltzea beharrezkoa izango dute eta bertan izena ematea.

POLITIKA ▶

Bihar, Tolosa Bizirik-en elkarretaratzea

Tolosa Bizirik ekimenak, Udaleko osoko bilkura dela eta, elkarretaratzea egingo du bihar, Plaza Zaharrean 19:00etan, *Apartheid ez. Dimisioak orain* lelopean. Tolosar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte «gure herriak bizi duen itxaropen aroan, inoiz baino beharrezkoagoa baita udaletxean ideia guztiak ordezkatuak egotea benetakoa bakearen bidean».

HEZKUNTZA ▶

HHI-k bigarren lauhilabeterako matrikula ireki du

Helduen Heziketa Iraunkorrrak (HHI) bigarren lauhilabeterako matrikula ireki du, datorren otsailaren 3a bitarte, 15:00etatik 18:00etara. DBH graduatua, idazten eta irakurtzen ikastea, matematika sakontzea, unibertsitateko sarren 25 urtetik gorakoentzat eta Lehen Hezikuntza daude aukeran, besteak beste. Informazio gehiago 943 67 26 60an.

TABAKOA ▶

Kartelak euskaraz izateko kanpaina abiarazi du UEMAK

Tabakoaren Aurkako Lege berriaren harira, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak kanpaina bat abiarazi du, UEMAKo herrietako taberna, ostatu zein elkartetan euskarazko kartelak banatzeko. Kanpaina Kontseiluarekin eta Galtzaundirekin adostutako elkarlanaren ondorioa da. Interesatuak aukera dute kartelak lortzeko, 943 26 03 72 zenbakian.

KULTURA ▶

Aranburun, Luis Maria Nuñezen erakusketa

Otsailaren 25era bitarte, Luis Maria Nuñez margolariaren pinturak izango dira ikusgai, Tolosako Aranburu Jauregian. Bakarrrik ikasi duen margolari honek «egunero gauzetara hurbilazten gaitu indar biziz baina, aldi berean, leunki». Aranburu Jauregiak duen ordutegia 17:30etik 20:30era da, jai-egun eta astelehenetan izan ezik.

ARETO FUTBOLA ▶

Etxeko puntuak eskuratu ezinik darrai Laskorain taldeak

GSI taldearen aurka galdu zuen, 3 eta 6koarekin, Usabal kiroldegian iragan larunbatean jokaturako partidari

ERREDAKZIOA

Porrota berri bat jaso zuen iragan asteburuan Laskorain taldeak, GSI Bilbako taldearen aurka etxean jokaturako partidari. Lehengo astean ere Tolosan jokatu zuten Egizabalen mutilek; «porrot mingarri hark utzitako aho zapore mingotsa» ahaztu nahi zuten. Baina ezin. Usabalgo bigarren jokalekuan aritu ziren —nagusiaren azpian kokatzen den horretan— «ordutegien kudeaketa desegokia dela medio». Ohorezko mailako GSI Bilboren harrobi nagusia den izen berdineko taldeak bisitatu zituen jardunaldi honetan, «talde errespetagarri eta sendoa», beti ere.

Lehenengo zatia oso berdindu suertatu zen. Ikastolakoak izan ziren lehenak markagai-

luan aurrea hartzen, Barriolaren sareratze baten bitartez. Aldageletara joan aurretik bizkaitarrek neurketa orekatzea lortu zuten, banakoa ezarritik elektronikoan.

Bigarren zatian, aldiz, gauzak oso azkar okertu ziren, berehala lortu baitzuten bilbotarrak bat eta bikoa. Porrot berri bat jasotzeko suposatuko lukene kolpearen «beldur eta mamuak» laskoraindarren artean agertzen hasi ziren. Hala ere, une batez izu horiek uxatzea lortu zuten korer batean burrututako estrategia jokaldi bat Tellek ederki amaitu ostean. Ez zuen gehiegi irau etxekoan pozak, ordea, GSIkoek bi eta hirukoa egin baitzuten oso jarraian. Gol honek lurpean utzi zituen horitxoak, 5 minutu «talmalgarrietan» beste 3 gol jaso

zizutuztelarik. Markagailua zer-txobait apaintzea lortu zuen Tellek berriz ere, 10 metrotako jaurtiketa bat sareraturaz. Azken emaitza, beraz, 3 eta 6.

Etxeko puntuei ihes egiten uztearen «dinamika arriskutsua» lehenbailehen moztu beharra daukate laskoraindarrek, taldearen beraren uestetan. Urteetan zehar talde hau zerbaitek bereiztu badu, etxean erakutsitako sendotasuna izan da hori. Sendotasun hori berreskuratzeko aukera berri bat hemendik 15 egunetara izango dute horitxoek. Aurretik, ordea, Zierbena taldeari egin beharko diote bisita Muskizeko kiroldegian, datorren larunbatean. Hala, garaipena lortzea ezinbestekoa da taulako erdiko postuetan «kateatuta geratu nahi ez badute».

ARETO FUTBOLA ▶

Garaipen garrantzitsua arerio zuzenaren aurka

Amilibia eseri zen aulkian Hegoaldeko neskak zuzentzen; 5 eta 3koa lortu zuten

N. LATABURU

Caja Sur Cordoba taldea izan zuen aurrez aurre, pasa den larunbatean, Hegoaldeko taldeak. Partida garrantzitsua zen Usabalekoa, eta garrantzitsua izan zen, halaber, eskuratutako garaipena. 5 eta 3koarekin amaitu zen partida, non bitaldeak puntu gosez zeuden, sailkapeneko zuloa urrunago ikusi ahal izateko. Aulkian, berriz, entrenatzaile berria neska-ahantzaren, Virginia Amilibia, hain zuzen ere. Pozik egoteko arrazoiak ditu; izan ere, garaipenarekin hamargarren postuan kokatzen dira orain. Hala ere, asko dago oraindik egiteke.

Lehen itzuliko emaitza eskasak ahanztari nahian, gogoz irten ziren zelaira Hegoaldekoak; hori markagailuan nabaritu zen hasieratik, 2 goleko alde lortu baitzuten, Aldek eginikoak. Atsedenaldirako, ordea, aurkariak gol bat sartzea lortu zuten, tolosarrak

defentsan eginiko akats baten ondorioz.

Bigarren zatian, aldiz, gauzak oso azkar okertu ziren, berehala lortu baitzuten bilbotarrak bat eta bikoa. Porrot berri bat jasotzeko suposatuko lukene kolpearen «beldur eta mamuak» laskoraindarren artean agertzen hasi ziren. Hala ere, une batez izu horiek uxatzea lortu zuten korer batean burrututako estrategia jokaldi bat Tellek ederki amaitu ostean. Ez zuen gehiegi irau etxekoan pozak, ordea, GSIkoek bi eta hirukoa egin baitzuten oso jarraian. Gol honek lurpean utzi zituen horitxoak, 5 minutu «talmalgarrietan» beste 3 gol jaso

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000
etxetara**

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GIZARTEA ▶

**Foru Aldundiak
22.814.446
euro bideratu
ditu Tolosarako**

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak gastu eta inbertsioen agiria bidali dio alkateari

ERREDAKZIOA

Joxe Joan Gonzalez de Txabarrri Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak Jokin Bildarratz Tolosako alkateari bidali berri dio Foru Aldundiak Udalean egingo dituen ekarpen eta inbertsioen agiria. Bertan azaltzen denez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 22.814.446 euro bideratuko ditu Tolosarentzat.

Kontu sail horiek Batzar Nagusiek joan den urteko abenduaren 22an onartu zituzten 2006ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan jasota daude.

Hala, Tolosako alkateari bidalitako agiriari erantsitako gutunean, Ahaldu Nagusiak adierazi du «udalka egindako foru aurrekontuaren bertsioa, udalez udal egingo diren inbertsioak eta gastuak bananduta, gardentasun politikaren, Aldundia-aren eta udalen arteko lankidetzazabalaren eta lurraldearen garapen oreaku eta iraunkorraren aldeko apustu garbiaren isla» dela.

Agiri horretan sartuta daude, halaber, konpromiso kredituak eta Inbertsioen Aparteko Planean jasotako kontu sailak, baita Bidegi sozietate publikoarenak ere.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

CD Logroñoren arteko partidaren berdinketa erdietsi du Ibarrak

2-2 bukatu zen larunbatean jokaturiko partida; epaileek «ez zuten maila ona eman eta etxekoen alde egin zuten»



Berdinketarekin konformatu beharra izan zuten ibartarrek larunbatean jokaturiko partidaren. i. t.

ERREDAKZIOA

Partida «arraroa» izan zen larunbatean Ibarra areto futbol taldeak eta C.D. Logroño Al-beldan (España) jokatu zutena, Ibarra-koen prentsa arduradun Jose Manuel Tobiasiek azaldukoaren arabera. Emaitzari dagokionez, justua izan zela esan behar; 2-2ko berdinketarekin amaitu zen. Partidaren bi zatik oso desberdinak izan ziren; lehenengoan etxeko taldea, hau da, C.D. Logroño gailendu zen; eta bigarrenean, berriz, ibartarrak nagusitu ziren. Partidaren amaieran, be-

raz, puntuak banatuta, eta bi taldeak «gustura» geratu zirela esan behar.

Partida hasi eta zazpi minutu jarri ziren aurretik errioxarrak. Indartsu hasi zen etxeko taldea, eta gola sartzearen denbora kontua baino ez zen; bitartean, Ibarra-ko jokalariek lekua bilatu ezinik ari ziren jokatzen. Gola alboko sate baten ondotik etorri zen, Logroño-ko jokalariek Ibarra-ko defentsaren erorikoaz baliatu zen eta baloia sare barruan sartu zuten. Minutu bat nahikoa izan zuten etxeko taldeak bigarrena egiteko. Logroño-koen jokala-

riak Igor Zabalo Ibarra-ko atezainaren aurrean jaso zuten baloia, eta jaurtiketa indartsu batekin garaitu zuten, 2-0eko eginez. Bazirudien joaneko partidaren gertatu zen gauza bera gertatuko zela, baina Cesar Rocaren mutilek eustea lortu zuten eta markagailua bere horretan mantendu zuten atsedendira iritsi arte.

Bigarren zatia oso bestelakoa izan zen. Ibarra eritmo biziz ateratu zen, eta baloia era azkarrean mugituz behin eta berriro iristea lortu zuten aurkarien areara.

5. minutuan izan zen taldeko

CD LOGROÑO ▶ 2

IBARRA ▶ 2

Hasierako boskotea. Igor Zabalo; Unai Labaka; David Prados; Ustaritz Errondosoro; Hautsi Izagirre.

Aldaketak. Jon Ander Carrera; Sinoe Sanz; Lander Camio; Mauro Ayerza; Xabier Blanch.

Ordezko atezaina. Mikel Sanz.

jokaldi eder baten ondorioz ibarrak lehenengo gola egin zuen unea. Unai Labaka izan zen baloia sare barrura bidali zuena. 2-1eko zen, eta Ibarra behin eta berriro saiatu bazen ere, eta aukera paregabeak izan bazituen ere zorteak ez zien lagundu. Partidaren amaierarako 5 minutu baino ez zirenean geratzen Xabier Blanchek alboko sate batetik iritsi zitzaion baloia buruz eman ostean ate barruan sartzea lortu zuen. 2-2koa zen. Azken minutuak oso zurragarriak izan ziren batean eta bestean aurrerak sortzen zirelarik. Ibarra-koen esanetan, tarte horretan epaileek eginiko lana «ez zen batere ona izan, ez zeudenean ere faltak ikusten baitzituzten». Hala ere, markagailua ez zen mugitu eta berdinketarekin amaitu zen partida.

Jubenilak, bikain

Txubel-en mutilek dagokionez, erraz garaitu zituzten aurkariak. Hain zuzen ere, 12-1eko emaitzarekin gailendu ziren Santurtziko San Jorge taldekoen aurka.

Kadeteen taldeak, bestetik, 8 eta 4 irabazi zuten larunbatean jokaturiko partida. Emaitza horrekin, lehenengo postuan jarraitzen du Ibarra-ko taldeak.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: ennio@innoennio.com
www.innoennio.com

Asteasu. 250 m2ko bi familiarentzako etxea salgai. Eraikuntza berria!
Amezketak. Etxe atxikia salgai.

Belautza. Eraikuntza berriko bi familiarentzako etxea salgai. 462.780 euro.

Bidania. Eraikuntza nahiko berriko bi familiarentzako etxea salgai. Oso egoera onean.

Hernalde. Bi familiarentzako etxe ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Garaje itxi eta irekiak salgai. Ibarra. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. Erremontari. Hormigoizko egitura. 2 logela. Oso egoera onean. Trastelekuarekin.

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak salgai. Hiru eta lau logelekin. Terrazak. Sukalde hornituak. Garajeekin.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Larramendi. 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena. 309.500 euro.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m2-ko etxebizitza igogailuarekin. Berritzeko.

Tolosa. Geltokialdean. Eraikuntza berria. Bi logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, bi terraza eta bi lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoa.

Txarama inguruan. 100 m2-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su

bajuarekin, lursaila eta garajearekin. Oso egoera onean.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Laskurain. 80 m2. Bizitzeko jartzeko modukoa. 297.500 euro.

Tolosa. Ibarrik gertu. Duplex-a garaje ibiarekin. Guztiz berria. 297.500 euro.

Tolosa. Erdialdean (oso toki onean). Eraikuntza berriko etxebizitza. Hiru logela eta bainugela. 371.425 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabean!

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza ederra, garajearekin salgai.

Tolosa. Erdialdean 253 m2-ko lokala (bi solairutan banatua) salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m2-ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2.000 m2-ko pabiloi industrialak alokairuan.

Tolosa. Guadalupe. Pabilioia salgai. 228 m2 beheko aldean eta 148 m2 goialdean. Prezio interesgarria!

Villabona. 24.400 m2-ko lursaila eta 140 m2-ko borda.

Villabona. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Jantzia. Hobekuntzak dauka. 228.385 euro.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ EUSKARA

Atzerritarrak euskara eta euskal kultura ikasten ari dira Aisa programaren bitartez

Zizurkilgo eta Villabonako udalek bultzatuta, Ekuadorreko, Uruguaiako eta Kubako hiru ikasle ari dira ikastaroa jasotzen Atxulondo kultur etxean

IMANOL GARCIA

Atzerritarrak euskal kulturara eta hizkuntzara hurbiltzea helburu duen Aisa programa abian jarri zuten Zizurkilgo eta Villabonako udalek. Aste honetan amaituko dute 60 orduko ikastaroa. Hasieran hamabi lagunek izena eman bazuten ere, hiru dira azkeneko klaseetara joaten ari direnak: Leonardo Salazar ekuadortarra, Marcelo Ayerza uruguaitarra eta Jorge Perez kubatarra. «Izena eman zuten batzuk ez ziren azaldu, beste batzuk Ramadana zela eta, beste batzuk lana bilatu dutelako edo beren jatorriko lurraldera itzuli direlako, azkenean hiruk jarraitzen dute ikastaroa», dio Garbiñe Ezkerra irakasleak.

«Euskara barneratzen hastea da helburua. 60 orduko ikastaroa da, astean 6 ordu. Oso denbora gutxi da, baina euskaraz eta kulturaz pixka bat jabetzeko balio die. Gero euskara ikasteko euskaltegi-etara joateko aukera dute, gu-



Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean ematen dituzte Aisa ikastaroko eskolak. I. GARCIA

txienek ikastaro honek ematen dituen oinarriekin», azaldu du Ezkerrak. Klaseak dinamikoak izateko prestatuta dago libu-

ria, egunerokotasuneko gaiak lantzeko. «Praktikotasuna bilatzen da. Azokara joaten zarenean erosketak euskaraz egi-

teko, adibidez. Gero, beraiek eskatu didate gramatika erakusteko eta baita aditzak ere», dio irakasleak.

Salazar eta Ayerza ikasleek euskara ikasteak duen «zailtasuna» aipatu dute. Perez, baina, ez dago ados: «Denok dugu gaitasuna hizkuntzak ikasteko. Dedikazioa behar da. Faktore garrantzitsua denbora da. Hizkuntza bat ikastea eguneroko biziarekin bateratzea zaila da».

Hiru ikasleek bat egiten dute hemengo gizartera egiteko oso garrantzitsua dela euskara ikastea. «Nire asmoa egun batean euskaraz komunikatzea da, jendearekin euskaraz egitea da», dio Salazarrek. Ikastaro honekin «pixkanaka» integratzeko nahia du Ekuadorrekoak. «Hemen bizitzen jartzeko beste pauso bat da», dio Perez kubatarrek. «Pauso garrantzitsua da. Hizkuntza kulturaren parte da. Bideak irekitzen dizkizu gizarteran eta bizitzan zerbait gehiago ikastea ongi etortzen da. Gainera, euskara ez galtzea oso ondo iruditzen zait, kultura ez baita galdu behar». Ayerza uruguaitarra ere jendearekin euskaraz komunikatu nahi du: «Denak euskaraz ari diren lagun talde batera gerturatzen banaiz, segituan aldatzen dute hizkuntza. Nire nahia horrelako elkarrizketetan sartzea da».

Klasea hasi aurretik hitz egin zuen HITZAK ikasleekin. Ondoren, irakaslea galderak egiten hasi zen euskaraz, ikasleek egun horretan egindakoa azaltzeko. Eta ikasleak ahal zuten neurrian euskaraz erantzuten hasi ziren, «hitz egiten eta hanka sartzen ikasten baita», beraien esan zuten bezala.

ANOETA ▶

Santa Ageda bezperako entsegua parrokiari

ERREDAKZIOA

Santa Ageda bezperan, hau da, otsailaren 4an abesten atera nahi duenarentzako entsegua antolatu dute Anoretako parrokiari. Entsegua datorren ostiralean izango da, otsailak 3, eta 20:00etan hasiko da.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

ZINEMA ▶

Hamar izendapenetik sari bakarra 'Obaba'-k

Soinu onenarena eskuratu du Goya sarietan Atxagaren eleberrian oinarritutako filmak

ERREDAKZIOA

Herenegun gauean izan zen Espainiako Goya sarien ekitaldia, eta Montxo Armendariz nafarraren *Obaba* filmak hamar izendapen bazituen ere, sari bakarra eskuratu zuen. Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eleberrian oinarritutako filmak soinu onenaren saria eskuratu zuen soilik, zituen izendapenen artean xumeentakoa.

Beste bederatziz izendapen zituen filmak, horien artean sari nagusiak zeuden irabazte-

ko hautagaietako bat zen. Azkenean, baina, Isabel Coixeten *La vida secreta de las palabras* izan da garaile nagusia. Coixeten filmak bost izendapen zituen eta lau Goya bereganatu ditu: film onenaren saria eta zuzendari onenarena, bestek beste.

Bestalde, Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendari euskaldunak ere esku hutsik geratu dira. *Aupa Etxebeste!* filmean —Tolosan filmatu zituzten eszena batzuk— egindako lanagatik zuzendari berri onenaren sarirako izendatu zituzten.


ADUNA ▶ GIZARTEA



Info 7 irratitari laguntzen

Erredakzioa ▶ Azti-begia elkarteak bazkideak lortzeko mahaia jarri zuten Adunan pasa den larunbatean. «Hotza egiten bazuen ere gure herriko plazan, herritarren berotasuna izan genuen», esan dute egitasmoaren antolatzaileek. «Jarri genituen helburuak lortu ditugu eta, gainera, jende dezente hurbildu zitzaigun zertan ari ginen galdetzeraz». Egitasmoaren helburua «Euskal Herri osoa haintzat hartuko duen Info 7 irratia nazionala» laguntzea da. Guztira, zortzi adunarrek egin zuten bazkidetza. «Eskerrik eman nahi dizkiegu bazkidetza egin dutenei eta besteek aurrerantzean bazkidetza egiteko eskatzen diegu». HITZA

PILOTA ▶



Aurrera-Saiazeko jokalarri hauek Euskadiko Kluben Txapelketan ari dira. N.URBIZU

NEREA URBIZU

Elurrak asteburu honetan ez du pilotalekuan sartzarik izan, baina oztopo izan da errepidean eta horrek eragina izan du pilota saioetan, ezin izan baituzte denak jokatu Amezketan aldean. Bertan behera geratu ziren Udaberri Txapelketako guztiak, bat izan ezik. Aurrerago data berriak ezagutzera emanen dituzte.

Jakina den bezala Aurrera-Saiaz eta Zazpi Iturri eskualdeko bi pilota eskolak hainbat txapelketa jokatzeko ari dira, eta asteburuari ari dira, inguruko pilotalekuetan askotan, kanpoko frontoiekin ere tartekatuz.

Orokorrean esan daiteke etxean jokatu dituzten ia guztiak irabazi egin dituztela. Etxean jotzeak badirudi, kasu honetan, onerako izan dela.

Udaberriko Txapelketa. Aurrera-Saiaz pilota eskolak kadete mailan bi garaipen eta porrot bat jaso zuten. Antiguon bi partida jokatu zituzten eta Lasar-Dorronsorok osatutako bikoteak ezin izan zuten garaipena lortu, 9 tanto eginez. Bigarren partidan, ordea, De La Sotilla eta Etxeberria nahiko fin aritu zen, eta 12 tantotan utzi zituen arerioak.

Bestalde, Urrietako larunbateko partida bertan behera utzi egin behar izan zuten, elurrik eragindako arazoak zirela medio.

Senior mailakoan artean bigarren mailan daudenak aritu ziren, eta lan bikaina egin zuten, joko polita eginez. Añorga-

Udaberriko Txapelketan ere, elurra

Jokatutako partidak borrokatuak izan dira, eta emaitzak parekatuak



Amezketan aldeko pilotari hauek txapelketetan parte hartzen dute. N. U.

ko bikotearen kontra 22-5eko emaitzarekin gailendu ziren Beotibar pilotalekuan.

Zazpi-Iturri Amezketako pilota eskolak partida bakar bat jokatzeko lortu zuten Intxaurren. Bi tanto azpitik amaitu zuten norgehiagoka Zelaia-Leunda nagusi mailako bikoteak, oso partida borrokatuaren ondoren. Edozein kasutan, pilota ona ikusi ahal izan zen, Eskoriatzaren kontra jokatu zuten moduan, emaitza bera lortuz, gainera.

Euskadiko Txapelketa. Zazpi-Iturrik oso emaitza onak lortu ditu asteburu honetan txapelketa garrantzitsu honetan. Izan ere, sei partidetatik lau garaipen lortu dituzte. Eskuz banakakoan artean kadeteetan Sukiak zorte txarra izan zuten oso, eguna berarekin bat ez etorritik, 3 tanto egin baitzituen Lizarrakoen kontra. Nagusien mailan, aldi, garaipena argia izan zuten Baezen alde; Huartereko aurkariak 5 tanto lortzen zituen.

Eskuz binakakoetan bai kadeteek eta baita jubenilek ere garaipena eskuratzeko zuten. Alde batetik Txaruta pilota eskolaren kontra Iraola-Arzelus bikotea 11 tantorekin utzi zituen bi arerioak. Ropon-Legarreta jubenilek 10 tantotako alde ateratzen zieten Nafarroako Huarterekoei. Ez zen berdina gertatu Lekunberrin nagusien mailan: Baez II. a-Garmendia oso ongi aritu baziren ere, partida biziak galdu egin zuten 21 tantorekin. Azpiroz-Zabalobikotea izan zuten arerio. Beran (Nafarroa) jokatuakoaan Elurbe-Belokik galdu egin zuten 22-18 emaitza lortuz. Beraz, batez ere nagusien mailako partidak oso biziak eta gogorak izan ziren Amezketako eskolakoentzat, nahiz eta batzuk galdu izan, pilota kalitate ona erakutsiaz.

Aurrera-Saiaz Tolosa eta Bidegoiango eskolak denetarik lortu du ere. Jubenilen artean bikote bat aritu zen larunbatean Beotibarren, eta 22-15 galdu zuten, Irurtzun talde nafarraren kontra. Telletxea-K. Galarraga bikoteak arerio gogor samarrak izan zituzten aurrez aurre.

22 urte azpikoan artean Senperenak garaipena lortu zuten Sutegei eskolakoan kontra. Olaetxea-E. Galarraga bikotearen antzera. Aspek eta Orbegozok Irurtzungoan kontra jokatu zuten, 22-12ko emaitza lortuz.

Senior mailan Zapirain aritzekoa da gaur, Beotibarren, 19:30ean, eta Erreka pilota eskolako pilotari bat izanen du arerio. Elite mailan, azkenik, Bellosok eta Oteizak osatutako bikoteak garaipena lortu zuten Altsasuko taldeko bikotearen

ALEGIA ▶

'Marius y Jannette', bihar, zine-klubean

Alegiako Gaztetxeak otsailan ere jarraituko dute zine-klubeko saioekin. Bihar, hain zuzen ere, izango da hila-beteko lehendabizikoa: 21:30ean, *Marius y Jannette* izanen da ikusgai, Robert Gueguian frantziarrak zuzenduta. Hurrengo astean, berri, Bong Joo-Horen zuzendariaren *Memories of murder* Hego-koreako filma izango da ikusgai Gaztetxean, ordu berean.

ALTZO ▶

Yoga ikastaroa hasiko dute otsailean

Hastear dago otsailan yoga ikastaroa, Altzon. Seiko taldea osatuz gero aurrera eramanen dute ikastaroa. Udalarekin eman behar da izena, eta 10 euro ordaindu, aukeratu nahi den ordutegi aukera ere zehaztuz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarano autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶

Bihar goizean
kiroldegia itxita
egongo da

Arazo elektrikoak direla eta, bihar goizean Belabieta kiroldegia itxita egongo dela ohartarazi dute bertako arduradunek.

IBARRA ▶

Udalaren tasetan
hobariak
gingo dituzte

Ibarrako Udalak jakinarazi duenez, familia unitate bakoitzeko 2006rako indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata (540,90 euro) baino gutxiagoko diru sarrerak egiaztatzen dituzten pertsona fisikoak salbuesita daude zabor-bilketako tasa ordaintzetik, eta uraren kontsumoagatik eta estolderia erabiltzeagatik tasan hobaria izango dute. Horretarako, familia unitatearen kide guztiek Ibarran errodaturik egon behar dute. Taseen salbuespenak eta hobari-eskaerak Udalaren Gizarte Zerbitzuen sailean aurkeztu behar dira, otsailaren 17a baino lehen. Eskaerarekin batera, nortasun agiria, familia unitatearen kide guztien diru-sarreraren ziurtagiria, 2005eko uraren ordainagiria eta zabor-bilketagatik ordainagiria eraman beharko ditu eskatzaileak.

IBARRA ▶

Hobariak ezarriko
dituzte familia
ugarietan

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren %50eko hobaria aplikatuko diete «familia ugariako titular izan eta baldintza hori justifikatu dezaketen subjektu pasiboak». Eskaerak Ibarrako Udalaren Gizarte Zerbitzuen sailean aurkeztu beharko dira, otsailaren 28a baino lehen.

IBARRA ▶ UDALA

Uzta: «Arauen azken
erabakiak herritarren
berrespena behar du»

Arau subsidiarioak eztabaidatzeko Udalak luzatutako mahai batean biltzeko proposamena ondo ikusten du

ERREDAKZIOA

Ibarrako arau subsidiarioak eztabaidatzeko osaturiko mahai-ingurua denon artean osatutako mahai izan beharko lukeela, hau da, alderdi politikoak, biberistak eta baserritarrak eta herritarrak bilduko dituen, eta azken erabakiak herritarren berrespena beharko lukeela adierazi du Uzta plataformak Chelo Romeo alkateak eginiko proposamenaren gainean.

Hain zuzen ere, pasa den urteko abenduaren 10eko alkateak bilera baterako deia luzatu zion Uzta plataformari, eta honen ordezkerari moduan Iñaki Urkizar zerrendaburua joan zen. Bertan, Uzta azaldu duenez, beste hainbat gai eztabaidatzeaz gain, «proposamen bat luzatu zigan Ibarran hain eztabaidatuak izaten ari diren arau subsidiarioen inguruan». Hala, adierazi dute alkateak egindako proposamena gai horri buruz eztabaidatu asmoz herritar talde batek osaturiko mahai bat eratzean oinarritzen zela. «Baina bilera horretan ez zituen zehaztu mahai honen eraketa, erabakitze gaitasuna... Hau da, mahaiaren sorrerak izan ditzakeen benetako helburuak, gehitu dute.

Uzta alkateak eginiko proposamenaren aurrean edozein erantzun eman aurretik ondorengo azpimarratu nahi duela azaldu du: «Illegalizazio politikaren ondorioz 842 ibartarren eskubide zibil eta politikoak urratuak daude; ibartarrok boto bidez hautatutako bost zinegotzi Udaletik kanporatuak daude lege antidemokratiko



Pasa den urteko abenduaren bildu ziren Uzta eta Ibarrako alkatea. I. T.

baten ondorioz; Ibarrako Udaleko gobernu taldeak, lege horrekin ez dagoela ados adierazi arren, praktikan bost zinegotzi hauek Udalean onartzeko ez du pausorik ematen nahiz legezko bideak eduki (Azkoitiko adibidea...). Beraz, Udalak ezker abertzaleari udal jarduneko parte hartzeko eskubidea ukatzen dio».

Halaber, herri batentzat arau subsidiarioak onartzea oso gai garrantzitsua dela eta bertan erabakitakoak herritar guztien egunerokotasunean eragiten duela zehaztu du Uzta, eta datuen 10 edo 15 urteetarako «nolako Ibarran izan nahi dugun» erabakiko dela, epe horretako garapeneren oinarriak erabakiz. «Epe luzeak» erabakiak direnez, gisa horretakoak 3 edo 4 legealdiz behin hartu ohi direla gehitu du plataformak; «ezker abertzalea aurreko legealdiko lehen indarra izanik, Udaletik kanporatu dagoenean hartu nahi dituzte horrelako erabakiak, botoek eman ez eta lege antidemokratiko batek eman dieten gehieneko absoluto eta esku libree-

kin», adierazi dute. «Udalean alderdi guztiak egongo bagina ere, Ibarra eta ibartarrentzat hain garrantziko diren gaietan, herritarrok lau urtez behin boto bidez ordezkariak hautatzeaz gain, erabakietan parte hartze zuzena izateko aukerak eta bideak bilatu behar dira; are gehiago herriaren eragin handia suposatzen duten gaietan, herritarrek zuzenean hartu beharko lukete horietan azken erabakia», azaldu dute, bestalde. Uztaren ustez, «boto bidez hautatua izateak ez dio inori lau urtez herria egin eta desgiteko esku librerik ematen».

Uztaren proposamena

Herri plataformak «aipatutako puntuak kontuan izanda ere, eta gaiaren garrantzia berriro ere azpimarratuz», Udalak luzatutako mahai batean biltzeko proposamena onatzen hartzen du, baina, «beti ere denon parte-hartzea ziurtatzeko prozesuaren hasieratik lanean hasiten bagara, eta ez jadanik erabakita dagoen proiektu itxi

PROIEKTUA

«Sektore ezberdinen interesak eta interes orokorrak aztertuz eta oinarriak finkatuz zehaztu behar da»

MAHAIAREN OSAKETA

«Alderdi politikoek, biberistek eta baserritarrek eta herritarrek osatu beharko lukete»

batetik». Mahaiaren helburuari dagokionez, azterketa sozioekonomikoa kontuan izanik egin beharko litzatekeela interpretatu du plataformak, hau da, «sektore ezberdinen interesak eta interes orokorrak aztertuz proiektuaren oinarriak finkatu, eta ondoren horiek guztiak planoetara pasatuz, proiektua zehaztu».

Bestalde, interes orokorra eta sektore ezberdinen interesak uztartzeko ahaleginean, mahaiaren osaketak garrantzi handia duela adierazi dute; hala, herritarren parte-hartzea udala helburu, eta horretarako bideak ere kontuan izan beharko direla aipatu dute. Hori kontuan hartuta, mahaiaren ondorengo eragileez osatzea proposatu du Uzta: alderdi politikoak, biberista eta baserritarrak (nekazal politikari lanean diharduen sindikatua, EHNE) eta herritarrak —«ordezkartza nola antolatu hitz egin beharko litzake»—. Halaber, «mahaiaren jardun ahalik eta errazena lortzeari begira», sektore bakoitzaren ordezkari kopuruak eta erabakiak hartzen joateko moduak zehaztu beharko lirateke azaldu dute.

Hartu beharreko azken erabakiari buruz ondorengo zehaztu du Uzta plataformak: proiektua zehaztean adostasun osoa balego ere, herritarren berrespen zuzena garrantzizkoa dela, eta proiektu bat baina gehiago zehaztuko balira herri galdeketa bidez ibartar guztion esku izan behar duela azken erabakiak.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Amezketza. Eraiki berria den etxe atxikia salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Eraiki berria den etxebizitza ederra salgai. Hiru logela. Garaje itxia. Zoragarria. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Berrituriko etxebizitza ederra salgai. Sukalde-jangela, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera.

41.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta. Egoera onean dagoen baserria salgai. Lursail eta guzti. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Segura. Familia bakarreko baserria salgai. Lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Gela bakarra duen etxebizitza polita salgai.

Terrazarekin. Egoera onean. 29.000.000 pezeta.

Tolosa. 96 m2 dituen etxebizitza salgai. Hiru logela, trastelekua eta garajea. 309.000 euro. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Eongela, sukalde, hiru logela eta bainugela dituen etxebizitza salgai. Eraberritua. Bista ederrekin. 38.000.000 pezeta.

Zizurkil. Eongela, sukalde, bi logela eta bainugela dituen etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko moduan.

Trastelekuarekin. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. [Ibarren zerrenda dugu.](#)

LEITZA ▶ KULTURA

'Hazparneko anderea'-ren Txinparta

Antzerkiaren bi emanaldi egin behar izan dituelarik, ia 600 ikusle bilduta, Txinparta taldeak mila txalo jaso ditu

JAIONE ASTIBIA

Bikaina. Horixe izan da Txinparta taldeak asteburu honetan erakutsi duen lanaren erakusketa, *Hazparneko anderea* antzerkiarekin.

Eta arrakastatsua erabat. «Jendearen emanak harritu eta gainditu egin gaitu», zioten igande iluntzean taldekoek, antzerkia bigarren aldiz taularatu eta gero. Izan ere, bezperan zinea lepo bete eta beste hainbeste lagun kanpoan antzerkia ikusi nahian gelditu zelarik, funtzioa hurrengo egunean, igandean, berriro eskaintzea erabaki zuten. Horrelakorik ez zutela inondik ere uste zioten, harrituta, baina aldi berean asebeteta.

Herriko jendeak, adin mota guztietakoak, gazteetatik adinduetara, 17 lagun oholitza gainean, beste 6 lagun laguntzailer, teknikoak 3, Lur Korta zuzendariaren esanetara guztiak elkar hartuta. Antzerkia egiteko ikastaroan izena emandakoak gehienak, paperak betetzeko beharrez konbentzitutakoak batzuk, baina azkenerako bakoitza bere eginbeharrean buru-belarri sartu eta elkartu diren herriko jendeak osatutako taldea da Txinparta. Eta, horixe, txinparta eragin ditu Telesforo Monzonen *Hazparneko*

anderea lehen lan honekin. Talde lan bikaina egin dute duela ia urtebetez geroztik eta horren isla izan ziren bi saioak.

Antzerkiaren osagai guztiak oso ongi zaindu dituzte, horren adibide jantzi zituzten zenbait arropa, esate baterako, joan den mende hasieran egokitutako istorioa izaki, ia 200 urte dituzten hainbat soineko erabili zituzten, herritarrek utzitakoak. Eta aktoreen lana, erreala, naturala, oso ona.

Beste zenbait herritara joatekoak direla baieztatu zuten.



Txinparta. Funtzioa bukatutakoan talde osoa atera zen oholitza gainera, txalo zaparradaren erdian: Ezkerretik hasita: Itxaro, Mila, Pili, Martin Mari, Joxe Mari, Brigida, Bihotz, Pablo, Juani, Maite, Lur, Ibon, Koldo, Gloria, Amaia, Jose Luis, Arantxa; Mertxe, Tomax, Aitor, Juan Mari eta Orkatz falta ziren. JAIONE ASTIBIA



'Hazparneko anderea'. Hasi eszenografiatik eta aktoreen lanera, lan bikaina egin zuten guztiak: osagarriak, arropak eta orrazkerak, pertsonaiak, arlo teknikoak... Urtebetean landu eta lortutakoa agertu zuten zinema bete jenderen aurrean. J. ASTIBIA



'Golf(keri)an'. Aktoreak batzuk urduri, besteak batere ez, guztiak oso gustura aritu ziren, makina bat alditan ikusleak algarak eraginez. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ PRESOK

Igor Astibia preso leitzarra bakartuta daukate Navalcarneroko espetxean

Ostiralaz geroztik, sei egunetarako sartu dute zigor zeldan

ERREDAKZIOA

Igor Astibia preso leitzarra ostiralaz geroztik bakartuta daukate «*txopanoan*, kartzelako kartzelan», Navalcarneroko (Espainia) espetxean, Askatasunak atzo jakinarazi eta argitu zuzenez,

«Ostiralean sartu zuten sei egunetarako, asteazkenean aterako dute handik», zehaztu zuten errepresioaren aurkako taldeak: «Zigorra areagotuz, kartzelako kartzelan sartu

dute: gela ttikia, komuna eta dutxa bere hartan dituen, berogailurik eta ur berorik gabe, tenore honetan zeropetik 2ºko hotzari aurre egiteko bi manta besterik gabe eta eguneko 24 orduak bertatik atera gabe». Zehaztu zuten, larunbat honetan bisitara ateratzen utzi bazioten ere, «kasu honetan senide eta lagunak asteburua ia 1.000 kilometro egiten dituzte, bide luze horrek dakartzan arrisku guztiei aurre eginez, berarekin 40 minutu egoteko»,

senideekin zuten *bis-a-bis*a ukatu egin zioten, «zigortuta» zegoela eta.

Beste gainerako kartzeletan bezala aitatutako honetan leitzararekin batera dauden zazpi euskal preso politikoez ere, «kartzeleko bizitzan egunero eragiten dituen sakabanaketa salatu eta bukatzeko» kartelazteak egiten dituzte eta kartze-

Etixerat-en elkarretaratzea

Lehenengo ostiralean, hilaren 27an, «euskal preso politiko-ei estatus politikoa onartzea» eta «sakabanaketaren aurka» elkarretaratzea egin zuten 20 lagunek, Etixerat-ek hilabeteko azken ostiraletan egiten duen deialdiarekin bat eginez. ◀

lak zigorrak ezartzen dizkiete, kasu honetan bakartuta egoitea.

Astibia, 2004ko azaroaren 16an eraman zuten atxilo bere etxetik, «hamalau hilabete dararamatza kartzelan preso, zergatirik jakin gabe».

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Astebukaeratarako sukaldaria behar da Tolosaldeko taberna batean. Deitu 677 32 99 34ra.

Gidaria. Gidaria behar da ADR-rekin, Espainian eta Hego Euskal Herrian zeharrekoko garraiorako. Lan finkorako aukera handiak. 607 58 41 39.

SALGAI

Txakurkumeak. 4 hilebete dituen ardi-txakurkumea salgai. 943 683 258 telefono zenbakira deitu.

ALOKERA

Pisua. Abaltzisketan pisu bat alokatzen da. 645 73 45 84.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. IX. Mendi Astearen barruan, aste bukaera antolatuta dute otsailaren 11n eta 12an Piedrafita de Jacako aterpean (Huescako Pirinioak, Espainia). Iraupen eskia edo pistako eskia egiteko edo mendira joateko aukera izango da. Izen-ematea, liburutegian.

Ibarra. III. Garagardo Azoka antolatuko bilera. 20:00etan, Kultur Etxean.

Ibarra. Sendi Ekintza sagardotegia zabalduko dute otsailaren 11n. Parte hartzeko Zubiaurre eta Sendi Ekintzan eman behar da izena aurrez.

Tolosa. Txosna batzordearen bilera. 19:00etan, Kultur Etxean. Inauterietan txosna jarri nahi dutenentzat azken deialdia da.

Tolosa. Erretzen uzteko tratamendua antolatuta du Udalak, otsailaren 6an, 13an eta 20an, martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an eta apirilaren 10ean, Kultur Etxean. Bertara joan nahi duenak izena eman behar du otsailaren 2a bitartean, 943 69 74 60 telefono zenbakira deituta.

HITZALDIAK

Alegia. Baratz kooperatiba ekologikoari buruzko hitzaldi informatiboa. 19:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1.

943 67 38 49.

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren erreposoa, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Adi Guri*, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekizpen Zentroaren eskutik.

22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Juanxo Zeberio tolosarra, pianoa jotzen, emanaldian. I. ASENSIO



Aranburu Jauregiko aretoa, jendez gainezka. I. ASENSIO

Natura, haurtzaroa, ametsak

TOLOSA ▶ 'Haize oihalak' diskoaren zuzeneko aurkezpena egin zuen Pello Ramirezek Aranburu Jauregian; entzuleek erruz bete zuten aretoa



Pello Ramirez, Maider Zapirain eta Juan Joxe Erauskin, ostiralean, Aranburu Jauregian. INIGO ASENSIO

ERREDAKZIOA

Zuzeneko emanaldi goxoak eskaini zuen Pello Ramirezek, ostiral iluntzean, Aranburu Jauregian. *Haize oihalak* bere lanaren zuzeneko aurkezpena egin zuen bertan. Juanxo Zeberio tolosarra pianoan, eta Juan Joxe Erauskin eta Maider Zapirain biolontzeletan izan zituen bidelagun musikari ordiziarrak. Ikus-entzuleek erruz bete zuten oraindik Alejandro Tapiaren margolanek apaindutako aretoa.

Hiru gai ditu oinarri Ramirezaren diskoak, eta kontzertuan ere ildo horietatik eraman zuen batera eta bestera entzulegoa: natura, haurtzaroa eta ametsak irudiak. Hala, olatuak, amildegi ertzeko gogoeak... irudikatu zituzten musikariek, naturari omen eginez. Jaiotzearen gozoen umeari eskainitako kanturik ere izan zen emanaldian. Eta ametsen mundura gerturatuz, besteak beste, ihes egiten saiatzen ari diren hiru otsoen elkartasuna.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Haitz Jauregi Aristi (Tolosa).
Aizo aitabok eta gaur Haitzek.
Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Gurasoen eta
Leirenen partetik.
Ondo pasa.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea**
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!